

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko urriaren 1a / 688. zenbakia

Maritxu Kajoi 2004




Guztiondako jaia!

ORAIN ETA HEMEN: OSOKO BILKURA/8 • KULTURA: ZINEKLUBA EGUENETAN/19

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK




**ERAKUSKETA
ETA TAILERRA**
San Juan 1 A
Tel.: 943 76 54 91
Faxa: 943 76 08 04

**ZABALDU
BERRIA**

ALTZARI DENDA
Ikerleku kalean
Tel.: 943 03 46 30



KALEINKESTA/ Maritxu Kajoik ixa urtero egiten dittu milagruak. Ze eskatuko zeuskio?



ZIGOR ZABALO
Langillie



AMAIA IRIARTE
Langillie



MARIA ZENGOTIBENGOA
Erretiraue



IZAR MAIZTEGI
Ikaslie



MARIA CANTERO
Langillie



ENRIKE LETONA
Langillie

Maritxu Kajoiri eskatuko neuskio mundure pakie ekartie, horren premiñe haundixe daukogu-eta. Lurdes holako milagruak egiten kantsaute egongo da, eta Maritxu geraketan jaku.

Neuk Maritxuri eskatuko neuskio Euskal Herrixan independentzie lortzie, eta kanpuen dauzenak etxera ekartie. Eta hori pasetie gatxa danez, milagruak esango dutzegu.


Mondraguen gauza asko dauz hobeketako, eta horretzek esango dutzut. Adibidez, aparkalekuekin problema haundixe dau, gajerik eta holakorik ez daukogunondako batez be.

Neuk Maritxu Kajoiri eskatuko neuskio Realak Espainako Ligie irabaztie. Milagron bat biherko dogu holakorik egin daixen. Bestela, Maritxutan urtetan dot, baiñe elegante jantzi barik.

Neuk alabie osaketie eskatuko neuskio, ondo jarri daille. Hori bete ezkerro, nahikue dauket. Maritxu Kajo asko gustetan jat, urtero urtetan dot, eta goititik behe- ra edarto jantzitze.

Argi dauket: preso danak etxera ekartie eta alderdi danak bat egittie plan jeneral bat organizetako; eta, bide batez, danon artien Euskal Herrira pakie ekartie behingoz.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK 'AUTOAN ELKARREKIN' Udalak *Autoan elkarrekin* ekimena abiarazi du, herritarrek autoa modu egokiagoan erabil dezaten. Horren helburua da autoa banatzeko interesa duten lagunak elkartzea, eta Udaleren webgunearen bitartez jar daitezke harremanetan interesatuak. Azkarle batzuek esan digute ekimen hori Auto Bariko Eguna baino garrantzitsuagoa dela, eta txalotzea merezi duela.

ETA BARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 9	KIROLA / 18	GAZTEAK / 20
Erakusketa Monterronen	Saskibaloia domekan	'Basetxea K' berbagai
Melina Lopez artistak 2003ko Emakumeendako Bekarekin egindako lana ikusgai.	Mugarri Alkesa Arrasate Saskibaloio Taldeak Caja Rural Ardoynen kontra jokatuko du Iturripen.	Laura Irizar arrasatearra <i>Basetxea K</i> lehiaketan izan da, eta berarekin izan gara.

ASTEKODATUA

7.000

ESKAPULARIO ATERA DITU MARITXU KAJOI KOMISIÑUAK

Maritxu Kajo Komisiñuak 7.000 eskapulario atera ditu saltzeko. Komisiñoko kideak ziur daude guztiak salduko dituztela, aurreko urteetan ere guztiak agortu dira-eta.

BESTEKEKESANA

“Emakumea ahalik eta bizkorren ari da arropa haritik askatzen, baina euria goian behean ari du, txorrotadaka. Presaren presaz, ekaitzaren aurkako lasterketa zoro horretan buru-belarri sartuta dagoela, joan eta galdetuko nioke: zertarako idatzi? Orduan brusa zuri batek ihes egin dio atzamar urdurietatik, eta nahiz eta gorputza atera eta beherantz makurtu den, eta besoa ahal bezainbeste luzatu duen, brusa erremedio barik amildu da euri tanta lodien laguntzaz, bat, bi, hiru solairu beheragoko leihoraino. Eta han, euri erauntsiari begira dagoen gizonari, bat-batean eskura etorri zaio brusa zuri melatua. Zein da literaturaren betebeharrak, mundua aldatzea ala munduz aldatzea?”

DIEGO MARTIARTU
'BERRIA'/04-09-25

HERRITARRENBERBAK/ Ander Etxeberria



Maritxutan

Bazegoen telebistan, urte batzuk dela, spot bat kolonia bati buruzkoa, “zure lehen kolonia” zioena. Eta perfumeaz gain, iragarkiko protagonistak lehen aldiz probatzen zituen bestelako esperientziak ere agertzen ziren. Maritxu Kajoia jaia ere bizipen berrietarako inimizazio-momentua da batzuetan.

Adibidez, trajea edo gaueko soinekoa seguruenik lehenbiziko aldiz Maritxutan jantzen dela (nahiz eta mutilen kasuan zenbaitzuk zailtasunak izan itxura berrira moldatzeko, eta zapatak beharrezko zapatila zuriak eramango dituzte). Beste era bateko kontuei begiratuz, Maritxu gauean etor daitezke alkoholarekin eta tabakoarekin lehen komeriak, eta gehiegikeriak ere, gizarte honetan ekidin ezinezko bidesari bezala. Adin batetik gorakoek tabernak betetzen dituzten bitartean, besteak herriko leku bazterragoetan (parke, frontoi, aterpe

eta abarretan) bilduko dira... nagusiagoen antzerakoa egiten.

Eta dagoeneko buruan daukazun beste alderdi zirrargarriago horri buruz zer? Estreinaldirik bai? Urriko lehen ostiralarekin batera etorriko al da harreman

“Maritxu Kajoia jaia ere bizipen berrietarako inimizazio-momentua da hainbat lagunendako”

berezirik? Zeren eta arropa dotoreaz, ilegogortzaileaz edo makillajeaz, batzuk eta besteak modelopak bezala, futbolariak bezala, aktoreak bezala, feromona zeregina errazagoa gertatzen omen da. Mailak ezberdinduz, pentsa

daiteke muxua emateko errazagoa izango dela, eta hortik aurrerakoa (edo beheragokoa) zailagoa. Dena dela, ostegun gauetako *Vayasemanta* programaren arabera, maila horretara iristea miraria da hemen. Zaila ez, miraria. Baina ez dago arduratzerik, Joxepo eta konpainiak ez dakite-eta Maritxutan miraria izaten dela Mondragoen!

Ondo pasau, presarik ez izan eta umorea ez dadila falta.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA

Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA

Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA

Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA

Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA

Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA

Agurtzane Galzarain
Ane Bereizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA

Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA

55-1124/88

ISSN

0214-4654

TIRADA

7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurfartzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 1**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- ZAPATUA, 2**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- DOMEKA, 3**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- ASTELEHENA, 4**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- MARTITZENA, 5**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 6**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUENA, 7**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- EGUBAKOITZA, 8**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguualitoria. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Delai. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak. 943 03 53 11
• Ikuskatzailea. 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44
- ERTZAINZAK**
Arrasate. 943 79 71 99
- SUHILTZAILERAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 12:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	Santa Marinako eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

NAFARROA OINEZ
Debagunek Nafarroa Oinezera joateko autobusak antolatu ditu. Urriaren 17an Lizarrara joan gura duenak bi aukera ditu: bata, Nafarroa Oinez lan egitea. Hala egiten dutenek autobusa doan izango dute. Gainontzekoek txartela ordaindu beharko dute. Interesatuak jo AEDra izena ematera.

FILM EMANALDIK
Bihar, zapatua, eta etzi, *El último beso* filma emango dute. Bihar, 19:30etan eta 22:00etan, eta etzi, 19:30etan. Horrez gain, domekan, 17:00etan, *Spiderman 2* emango dute. Eguenean, urriaren 7an, *La joven de la perla* emango dute zineklubean. 20:30ean izango da.

UMEENDAKO MASAJEA
0 eta 3 urte bitarteko umeendako masaje tailerra antolatu dute Emakume Txokoan. Hiru euro ordaindu beharko dira, eta urriaren 15a baino lehen eman behar da izena.

BIZIKLETEN KONPONKETA
Emakume Txokoak bizikletak konpontzeko tailerra antolatu du. Hiru euro ordaindu beharko dira, eta astelehena, urriaren 4a, baino lehen eman beharko da izena.

AEDren AGENDA

HIRU HAUNDIXEK HIRU EGUNETAN
Urriko azkeneko asteburuan Hiru Haundixek Hiru Egunetan mendi ibilaldia egingo dute. Lagundu gura baduzu, jo AEDra.


URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Gallizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Consulting Zubizarretak kudeatu zuen Zerrajera

Hilabeteetan kudeatzaileak bilatzen ibili eta gero, Zerrajera eta Transformados enpresak kudeatuko zituen taldea aurkitu zuten sindikatuek. Enpresa hori Consulting Zubizarreta zen. Aholkulari horren lehenengo lana izan zen bi enpresa horien bidegarritasun plana egitea.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru


“Zirika”



JON IRAEGI

Zirikatzen.
—Beti elkarri zirika dabitz.

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Astelehenetik aurrera, 'Igo Autobusera' saioa bueltan izango da, garajetik irten berri

San Juanetan garajean sartu genuen 107.7ko autobusa eta *Uda Giroan* saioak hartu zuen horren lekukoa. Baina udazkenean sartu orduko eta konponketak egin ostean, prest dugu 107.7ko autobusa berriro ere uhinetan barrena abiatzeko. Gaizka Vitoria mekanikari lanetan eta Aitziber Aranburuzabala autobusaren gidaria dela.

Berrikuntza ugari aurkituko dituzue aurten; autobusaren irterera ordua, hauen artean. Izan ere, aurten 09:00etan hasiko da *Igo*

Autobusera! magazina. Albistegia izango da lehen geltokia, Nerea Zubieteren eskutik. Albisteak jaso ostean, autobusak aurrera egingo du 11:00etan, geltoki ezagun eta beste berri batzuetan geldituz.

ASTEAREN GAINBEGIRATUAN

Asteburuan, berriz, asteroko gainbegiratuan, besteak beste, Melina Lopez diseinatzailearekin izandako solasaldia berreskuratuko dugu. Mikel Garaizabal enologoak aurtengo mahats uztaz esandakoak errepikatuko ditugu.

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 26	8 °C
MAXIMOA Martitzena, 28	25 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	4,7 L

Bergaroko San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 **Asteko gainbegiratua:** Melina Lopez, diseinatzailea; Mikel Garaizabal, enologoa; Julen Cobos, Bat Gehio taldeko abeslaria; Xabier Mendiguren eta Alkantz Billar, Donostiako Zinemaldiaz...
- DOMEKA**
10:00 **Asteko gainbegiratua.**
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00-11:00 **IGO AUTOBUSERA!**
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landia).
Elkarrizketak.
Meteorologiaren geltokia (Pello Zabala).
Gazte Bulegoaren geltokia.
Merkatu txikiaren geltokia.
Zozketak, etab...
- 11:05 **Musika**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:20 **Zorion agurren geltokia.**
- 12:30 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**
- 14:00 **IGO AUTOBUSERA! (errep.)**
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

ASTEABIHITZETAN

EA alderdiaren Alkartetxeak, 18 urte

Arrasateko Eusko Alkartasunak Alkartetxearen 18. urteurrena ospatu du asteburuan. Ospakizun berezi horretarako Arrasatera gerturatu ziren alderdiko agintariak eta horien artean EAko buru Begoña Errazti.

Begoña Erraztik adierazi zuen entzutera eta hausnartzera etorri zela Arrasatera. Ikuspegi nazionaletik ideiak barnertzeko eta herriaren alde borroka egiteko denon berbak entzun behar direla gaineratu zuen. Gainera, esan zuen oraingo egoera politikoan gogor egin behar dela lan.

MUren eta EHUren arteko hitzarmena

Mondragon Unibertsitateak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateak hitzarmena sinatu zuten joan den egubakoitzean. Hitzarmen horri esker, bi unibertsitate horiek batera eskainiko dute telematika sistemen gaineko masterra. Masterraren helburua da ikasle eta profesionalak telekomunikazioen alorrean eta puntako teknologietan trebatzea.

Badira lau urte MUK horrelako masterra eskaintzen duela, baina aurten EHUrekin batera eskainiko du masterra. Klaseak, baina, Arrasaten beharrezan Donostian izango dira.

Giza eskubideen gaineko ikastaroa

Giza eskubideen kultura lantzeko ikastaroa antolatu du Diputazioak. Gipuzkoako bi lekutan izango da, Donostian eta Arrasaten. Arrasateren kasuan, urriko eta azaroko zapatuetan izango dira eskolak. Hizlariak dagokienez, berriz, zenbait unibertsitateko katedradunak eta irakasleak etorriko dira: Deustua, Zaragoza eta Sevillakoak, esaterako.

Giza eskubideen bilakaera historikoa, etorkinak eta giza eskubideak, eskubide zibilak... landuko dituzte, besteak beste. Asko jota, 30 laguneko taldea osatu gura dute eskoletan.



Erdu-AEKren egoitzan berritze lanak

Erdu-AEK euskaltegiak berritze lanak egin ditu Arrasateko egoitzan. Egoitza goitik behera margotu dute eta altzari berriak jarri dituzte. Guztira, 3.000 euro inbertitu dituzte lanotan. Inaugurazioa martitzenean egin zuten, eta euskaltegi ikasleak eta bertan lanean dabilzanak izan ziren ekitaldian.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Tendentziak

Aurreko astean Asier Zubizarretak *Herritarren Berbak* sailean domotikaren gaineko gogoa sakona eta ironikoa egin zuen, berak egin ohi duen moduan. Arrazoi handia dauka. Gaur egungo aurrerapen eta zerbitzuek txanponaren beste alde ere badute, jakina. Baina ez gara konturatzeko, eta barruraino sartzen digute, azken asma-

kizuna, azken irrintzia eduki gura dugulako.

Zubizarretak aipatzen zituen adibideen parera, izugarria da sakelako telefonoak zelan ugaritu diren, eta zenbat erabiltzen diren. Gure gurasoek behin baino gehiagotan esaten digute euren gaztaroan -etxeko- telefono barik ederto moldatzen zirela, lagunekin gelditzeko edo beste edozertarako. Nik

ez dut horrenbeste esango eta gainera ez naiz hain zaharra, baina gaur egun jende asko sakelako barik galduta egongo litzake. Eta hori gehiegizkoa da. Kontsumoa areagotzeko, ohitura hori muturreraino sartu digute. Egia da batzuetan oso erabilgarriak direla, ez dut hori ukatuko, baina ez dira ezinbestekoak.

Gertuko adibideak besterik ez dira. CDa, DVDa eta beste asko ere halaxe sartu digute, halabeharrez.

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

UDAL LANGILEEK JOAN-ETORRIAK EGITEKO BIZIKLETAK EROSI DITUZTE

Auto Bariko Astea atzean utzi genuen, eta horren gaineko hainbat iritzi kontrajarri izan dira herrian. Hala ere, askoren ustetan halako ekimenak ezin dira egun bakarrera mugatu, eta autoen erabileraren gaineko hausnarketa sakona egin beharra dago. Horren harira, Udala aspalditik dabil Agenda 21

ekimena egiten, eta orain dela gutxi ekintza simboliko bat egin du. Udal langileei galdetu diete ea herri barruan egin beharreko joan-etorriak bizikletan egingo lituzketen. Batzuek baiezkota eman dute, eta horretarako bi bizikleta erosi dituzte. Erabilera handia ematen dabiltzala esan digute. /I.B.

P Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

Domu Santu egunerako
lore-sortak, zentroak,
eta abar.

BELEN MAIZTEGI

Enkarguak hartzen dira

Tele-ordainketa

Biteri etorbidea 13
Arrasate
Tel.: 943 08 15 44

LIRAK

Dotoretasunaren erregina eta txikiteroen zaindaria gurtzeko eguna

Aurtengo eskapularioak Espainiako Audentzia Nazionaleko fiskal nagusi Eduardo Fungairiñoren esanak jaso ditu

UBANE MADERA

Urriko aurreneko egubakoitza-ekin batera iritsi zaigu Maritxu Kajoi. Isilpean baina lanari kale egin barik, Komisiñuak gertu-gertu du guztia txikiteroen amaren jaia ospatzeko. Urtero moduan, dotore jantzita irteteko eskaera egin dute, eta jakina, jaian ondo pasatzeko.

Joan den asteko nobenaixuen eman zituzten Arabako Errioxako ardo gozoarekin eta Idiazabalgo gazta ederrarekin hasi da aurtengo Maritxu Kajoi eguneko ospakizuna. Eta gaur izango da egun handia Arrasaten. Gainera, azken urteotan moduan, geroago eta gehiago, jendeak ez gaua bakarrik, baizik eta egun guztia aprobetxatzen du Maritxu Kajoi ospatzeko. Horren irudi egunean zehar izango diren bazkari mordoa.

Baina, duda barik, iluntze partetik aurrerakoa da hitzordurik garrantzitsuena. Ordurako, ia gehienek txukun eta gertu izango dituzte etiketa jantziak; eta ile-apaindegiari bisjta egin ostean,



eder asko aterako dira kalera, parranda egitera.

Betiko moduan, 20:30ean Maritxuri lore eskaintza egingo diote Herriko Plazan, eta aurten miraririk ba ote den ikusteko

jende ugari bat egingo du han inguruan. Hortik aurrera izango den lege bakarra, berriz, ondo pasatzea da.

Gainera, ia urteroko euriak Arrasate bakean uztea erabaki-

tzen badu, kaleetako giroa ohikoa baino beroagoa izango da. Ipini-ko dituzten txosnek ere lagun-duko dute horretan.

Bada, ez da besterik falta Komisiñuari kasu egitea baino:

Joan den astean 'nobenaixue' egin zuten plazan; ardoa eta gazta eman zuten

Geroago eta jende gehiago ateratzen da egunez Maritxu Kajoi ospatzera

Mirariaren berri izateko jende ugari elkartuko da 20:30ean plazan

traje eta soineko dotoreak jantzi, lepotik eskapularioa zintzilikatu eta ahalik eta ondoen ibili Maritxuko gau magiko horretan.



Maritxu Kajoi 2004

URRIAK 1, EGUAKOTXA, MARITXU KAJOI (Golxetik golxera)

08:00 Maritxu Kajoi egunari hasiera emuteko, etxafueguez, ez daile zagatarik falta!

09:30 Udaletxeko sotuetan Talasoterapia zentru berrixen inauguraziñue ospatuko da herriko alkatian eskutik.

Zentru honen bittartez Arrasateko udaltzain sufriruen estresa arindu gure da.

15:00 Goiena Telebistak saio berezixe eskeiniko dau udaletxetik. Bertan gure alkatiek bi kapitulo didaktiko eskeiniko duzku: "Nola sinatzen da jai egitarauko agurra"; "nola konpondu herriko arazo guztiak urtebetean".

17:00 Kale animaziñuaz gozatu ahal izengo dogu, "Auskalo" taldien eskutik.

19:00 Herriko erraldoi eta kilikixek, Arrasateko gaiteruek lagundute, kalietako girue berotuko daue, ta baitte neskatilla mutikuen ipurdixek be!

19:30 Gure belarrixen gozamerako, Maritxun txarangiek bere makinarixie martxan jarriko dau, urtero moduen Txumairen zuzendaritzapeien.

20:30 Datorren urtien "denok gaude" esan daigun eta urte osoko parrandak eskerketako, Mondraueko kuadrillek lora eskaintza egingo dutzie Maritxuri.

00:00 Dantzaldixe plazan Trikiñio taldiaz. Ordu berien eta Seberon, Lotxo taldien eskutik, triki berbenie.

02:00 Arrasatearrok gutxiu ez garela eta, txosnagunien "Aupa Astigarraga" filma grabetie ekingo jako, Xabier Eguzkitzeren parte hartze estelarrarekin.

ABIXUEK

-Eskapulaixue txintxiliek eta dotore-dotore jantzitze urten deigun danok!

-Iazko arrakasta ikusitte, aurten be Maritxu Kajoi komisiñuek telefono bittartezko informaziño zerbitzue jarriko dau. Eskapularixuek zelan lortu jakin gure dauenak deittu lasai. Telefonue: 943 76 53 40.

-Urte askuen ziher moduen, aurten be Lekeitixoko txarangiek gure kaliek alaituko dittu. Eurai ongiatorrixie emuteko herriko balkoietan Athletiko banderak ixegittie komeni da.

-Eta zela ez! Ezin juen gare gure herriko preso eta errefuxiatuekin akordau barik. Laster ospatukou Maritxu danok alkarregaz; bai horixe!

Gaur gaueko arropa dotoreek beltzez jantziko dituzte Arrasateko erdialdeko kaleak

XU.

Kolore iluneko traje eta soinekoak aukeratuko dituzte gaur Maritxu Kajoi ospatuko duten milaka lagunek. Orain dela urte batzuk, dotore egoteko kolore beltzak ez zeukan egun duen eskusibotasuna. Orain, baina, gutxi dira kolore biziko jantziekin animatzen direnak, eta joan den urtean ateratako argazkiek erakusten dute hori.

Horrekin batera, gero eta gutxiagok jantzen dituzte aitona-rena eta amonaren arropa zaharrak. Batzuek diote egungo jai lehengo Maritxu Kajoitik asko urrundu dela; beste askok, berriz, horri ez diote garrantzi handirik ematen. Batzuek gurago dute bazkaltzera joatea, beste batzuek afaltzea da Maritxu Kajoi eguneko funtamentuz egin behar dena. Traje gorriarekin, zuriarekin edo beltzarekin irten, eta bazkaltzera, afaltzera edo gosaltzera joanda ere, zuen aierera ibili!!!

ARGAZIAK:ARRASATE PRESS



Arrasatearrak deseatzan egoten dira gau horretan kalera dotore irteteko.




Urtean koadrilek bat egiteko hitzordu garrantzitsua da Maritxukoa.



Komisiñoak 7.000 eskapulario atera ditu. Baietz guztiak saldu!

Gutxi dira kolore biziko traje eta soinekoak aukeratzen dituztenak



Herriko koadrilek Maritxuri eskaintza egiten diote.



Oso dotore jantzi arren eta jai gogo handiz izan arren, derrigorrezkoa da eskapularioa erosi eta jantzea.

OSOKO BILKURA/ Egitamu Orokorra berbagai

Oraindik ez diote behin betiko onespina eman Arrasateko Egitamu Orokorriari


UBANE MADERA

Luzea izan zen asteleheneko osoko bilkura. Batez ere, Egitamu Orokorrekin lotutako puntu bat eztabaidatu zutelako zinegotziek. Horrez gainera, zenbait udal langilek protesta egiteko aprobetxatu zuten batzarra. EB-Berdeek, berriz, mozioa aurkeztu zuten.

Ezker Batua taldeak izena aldatu duela jakinarazi zuten udalbatzarra hasi eta berehala. Hemendik aurrera, Ezker Batua-Berdeak izango da alderdiaren izena. Horren ostean, bestelako puntuen artean, burutzako hainbat lanpostu sortzeko proposamena aztertu zuten zinegotziek. Hau da, Udalaren barruan dauden departamentuen buruzagitza aldatzeko proposamena. PSE-EE eta PP ados ez izan arren, gainerako alderdien aldeko botoekin onartu egin zuten proposamena. Hori bai, osoko bilkuren aretoan udaletxeko zenbait langile ere baziren. Eta puntu horretan batere ados ez zeudela jakinarazi zuten Udaleko Enpresa batzordearen izenean. Azaldu zuten proposamen hori gainerako udal langileak kontuan hartu barik egin dutela; gaineratu zuten lanpostu aldaketa horiek ez dutela bermatzen udal langileek promoziorako izan beharko luketen aukera berdintasuna. Era berean, esan zuten bide horretatik ateak zabalitzen direla *entxufismo* eta *amigismoari*. Eta, jakinarazi zuten aurreantzean osoko bilkuretan parte hartzeko asmoa dutela, "langileek lan hitzarmena negoziatzeko duten eskubidea exijitzeko".

EGITAMU OROKORRA DELA-ETA

Horren ostean, bestelako gai ugari landu zituen udalbatzarra. Baina duda barik, Egitamua Oroko-



EB-Berdeak alderdiak Arrasateko bizitza publikoan laiotasunari eustearren gaineko mozioa aurkeztu zuen, baina ez zuten onartu.

rrarekin lotutako gaiak sortu zuten zinegotzien arteko ika-mikaririk handiena. Kontua zera da: joan den ekainean behin-behinerako onartu zuten Egitamu Orokorra eta horren ostean, jendaurrean ipini zuten, norbaitek alegazioak izanez gero, haiek aurkezteko. Hala, zenbait alderdik eta partikularrek alegazioak aurkeztu zituzten Egitamuari eta horietatik eztabaidatzen ibili dira orain arte alderdi politikoak. Behin alegazioen gaineko erabakia hartuta eta Egitamuan egin beharreko aldaketak eginda, aldaketa horiek sakonak badira, osoko bilkurak onespina eman beharra dauka. Horregatik

landu zuten puntu hori asteleheneko batzarrean. Baina eztabaida luze eta sakona izan ostean, Egitamu Orokorra ez zuten jaso legeak zehazten duen adostasuna: erabateko gehiengoa. Hortaz, ez zuten onartu. Eta oraindik ere bueltaka jarraituko dute gai horrekin. Hala argitu zigun EB-Berdeak alderdiko ordezkari Ander Rodriguezek.

OSPITALE BERRIA ESKATU ZUTEN

Edozelan ere, lehen esandako moduan, eztabaida sakona izan zuten zinegotziek puntu horretan. Eskualdeko Ospitaleak Egitamuari aurkeztu dion alegazioak piztu zuten eztabaida hasieran.

Kontua da Egitamuan ospitale-gunea handitzeko aukera aurreikusita zegoela, baina hori egiteko, Udalak proposatutakoa baino lursail handiagoa eskatu duela Osakidetza. Horren harira, PSE-EEren izenean Blanca Roncalek adierazi zuen gaur egun hemen inguruan dagoen eskaera kontuan hartuta, ospitalea handitu beharrean, ospitale berria egin beharko luketela. Haren esanetan, Arrasate EAeko laugarren hiriburua izatea gura bada, osasun arloan hobekuntza exijitu beharra dago. PPren izenean, Itziar Lamarainek bat egin zuen sozialistekin ospitale berria eska-

tzeko orduan. Horrez gainera, gaineratu zuen ospitalea handitzeko planarekin aurrera egingero, aparkaleku ugari kenduko dituztela. Eta Arrasateko ospitale berria behar duela ihardetsi zuen behin eta berrero. Bukatzeko, Aralarren izenean, Joxe Etxeberriak esan zuen ospitalea egin zutenean gune industrial batean egin zutela, ahal zen moduan. Eta orain egoera berrero aztertu eta ospitalearendako gune egokiago bat aurkitzen ahalegindu beharko lirakekeela.

Guztiei erantzunez, EAJko Agustin Ugartek esan zuen ospitalea hobetzeko proiektua hasi berri-berria dela. Ez dagoela inolako erabakirik hartuta eta oraingo azalera 1.500 metro koadro eta altueran 9.000 metro koadro eraikitzeko baimena emango ditela Osakidetzari; alegia, oraingo behintzat, ez dute aurreikusitako ospitale berria eraikitzeko eskaera egitea.

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

Eta eztabaida piztu zuen beste puntuetako bat zera izan zen: Arrasaten eraiki beharreko babes ofizialeko etxebizitzak kopurua. Hain justu ere, EB-Berdeak eta Aralarrek alegazioak aurkeztu zituzten horren gainean. Arrasaten eraiki behar diren etxeen kopuru osoaren %30a babes ofizialekoak izatea eskatu zuten biek. Hain zuzen ere, Axeri inguruan eraiki behar dituzten etxebizitzak direla-eta sortu zen eztabaida. Izan ere, proiektu horren arabera, eraikiko dituzten etxeen %25a izango da babes ofizialekoa. PSE-EEK, Aralarrek eta EB-Berdeak alderdiek kopuru hori handitzeko eskatu zuten; EB-Berdeak alderdiaren kasuan, adierazi zuten alderdiaren azken helburua dela %50eraino iristea.

Bedoñabe Haurreskolak atzo, eguena, estreinatu zuten zerbitzu berria

U.M.

Egin beharreko egokitzapen lanak egin eta gero, Bedoñaben eskainiko duten haur hezkuntzako zerbitzu berriak atzo ireki zituen ateak. 2004-2005 ikasturterako 20 umek eman dute izena oraingoz.

Zero urteko umeendako gela bat eta urtebeteko umeendako bi gela estreinatu zituen atzo Bedoñabe Haurreskolak. Guztira, 20 umek eman dute izena aurtengo ikasturterako. Edozelan ere, eta gaineratu digutenez, urriaren azke-

neko asteetan matrikulazio epe berria zabalduko dute eskolakoek. Oraingo honetan, datorren urteko urtarriletik aurrera eskolan hasi gura duten umeak matrikula daitezen zabalduko dute epe berria.

Era berean, jakinarazi digute San Andres auzoan dagoen Bedoñabeko Haurreskolaren irekiera ofiziala urriaren bigarren hamabostaldian egingo dutela.

UDAN JO ETA SU LANEAN

Bestalde, esan beharra dago Bedoñabeko lanak bukatu barik dardela. Izan ere, hasierako asmoa

zen 0-1 urteko umeendako sei ikasgela egokitzea. Hain zuzen ere, 234.560 euro aurreikusitako zuzen egokitzapen lan horiek egiteko. Joan den ekainean hartu zuten erabaki hori. Eta harrezkerro eta uda guztian zehar, egokitzapen lanak egiten ibili dira Bedoñaben. Helburua zen aurtengo ikasturtea hasi bezain laster eskaini ahal izatea 0-3 urte bitarteko umeendako haur-hezkuntza. Eta justu samar bada ere, lortu dute epea betetzea eta oraingoz duten eskaintzari aurre egiteko besteko zerbitzua aurkeztu dute Herri Eskolakoek.

LABUR

Herritarrekiko arreta hobetzeko, lehenago zabalduko dituzte udaletxeko leihatilak

Arrasateko Udalak jakinarazi duenez, herritarrei oraingo baino arreta hobea eskaintzeko asmoarekin, handitu egingo dute udaletxeko leihatilen ordutegia. Orain arte 10:00etan zabaldu izan dituzte leihatilak. Hala, erabaki berriaren arabera, datorren astelehenetik aurrera (urriak 4), ordu bete lehenago zabalduko dituzte leihatilak. Beraz, 09:00etan hasiko dira arreta zerbitzua ematen. Gauzak horrela, honakoa da hemendik aurrerako ordutegia: astelehenetik eguenera, goizean, 09:00etatik 13:00ak arte; eta arratsaldean, 15:30etik 18:30ak arte. Berriz, egubakoitzetan ohi dutenez, goizez bakarrik jardungo dute: 09:00etatik 14:00ak arte, hain justu ere.

Era berean, horrek esan gura du udal langileei astelehenean bukatuko zaiela orain arte izan duten udako ordutegia. Hain zuzen ere, ekainean hasi eta urriaren arte goizez bakarrik egoten dira. Datorren urtean ere hala egingo dute. Baina kasu horretan ere, ordubetez handituko dute udako ordutegia eta orain arte moduan 10:00etatik 14:00ak arte egon beharrean, 09:00etatik aurrera hasiko dira herritarrei arreta zerbitzua ematen.



Melina Lopez, Ana Mendieta artistan inspiratuta egin duen jantzi-eskulturen ondoan.

EMAKUMEENDAKO BEKA/Melina Lopezen 2003ko lana Monterronen

Melina Lopezen lana ikusgai: zortzi jantzi-eskultura

IRIANE MADERA

Urtebeteko lanaren ostean, astelehenean aurkeztu zuen Melina Lopez artistak Udalak emandako bekarekin egindako lana, 2003koa. XX. mendeko zortzi emakume artistaren lanetan oinarritutako jantzi-eskulturas egin ditu. Monterronen daude ikusgai, 15 egunez.

Bistarako oso deigarria da Melina Lopezek egindako lana. Originala izateaz gain, mota guztiatara elementuak erabili dituelako jantzi-eskulturas egiteko. Eta koloreak ere oso kontuan hartu ditu bere lana egiteko orduan. Hala azaldu zuen astelehenean, aurkeztu egin duen lana aurkeztu zuen orduan: "Bakoitzaren esentzia guztiak hartu eta zelanbait berrinterpretatu egin dut". Hain zuzen ere, Udalak iaz eman zuen Emakume-

endako Bekari esker egindako lanaren emaitza da Monterronen ikusgai dagoen erakusketa. Hamabost egunez izango da hango erakusketa aretoan.

EMAKUME ARTISTAK INSPIRAZIO-ITURRI
XX. mendeko zortzi emakume artistaren lanetan oinarrituta egin ditu jantzi-eskulturas Melina Lopezek. Ana Mendieta, Rebecca Horn, Louise Bourgeois, Cindy Sherman, Claude Cahun, Georgia

O'Keefe, Eva Hesse eta Frida Kahlo artistak aukeratu zituen: Hala, artista horien izaera eta lana kontuan hartu eta horretan inspiratuta, artista bakoitzaren ispilu izan nahi duten jantzi-eskulturas egin ditu artista gazteak. Adibide bat ematearren, Frida Kahloren lanean oinarritutako jantzia egiteko zera egin du: Frida Kahlok berak margotutako lanen zatiak erabili, Frida Kahlok izan zuen gaitasuna islatu soinekoaren gerruntzean, eta Kahloren nortasuna islatzeko haren egunerokotik hartutako esaldiak erabili.

UDALEKO ORDEZKARIAK POZIK

Bestalde, Udalaren izenean, Emakume Saileko teknikari Maite Barreña eta sail bereko buru Joxe Etxeberria izan ziren aurkezpenean. Biek hala biek adierazi zuten pozgarria dela beka eman ostean halako emaitza ikusgarria lortzea.

Arrasaten erakutsi eta gero, asmoa da Melina Lopezen lana beste herri batzuetan ere erakustea

Lau ibilgailuren arteko istripuak auto-ilara luzeak eragin zituen

GOITB / U.M.

Martitzen goizean, istripua gertatu zen Arrasateko saihesbidean. Lau ibilgailu izan ziren tartean, nahiz eta bik jaso zituzten kolpearik handienak. Ourenseko matrikuladun kamioi batek eta Donostiako matrikuladun furgoneta

batek elkar jo zuten. Kolpearen ondorioz, furgonetako gidaria, azkoitiarra bera, ibilgailu barruan harrapatuta geratu zen eta suhiltzaileek atera behar izan zuten. Eskualdeko ospitalera eraman zuten, zauri larriekin. Istripuaren ostean, errepidearen bi erreiak itxita izan ziren 09:00ak arte.

Horren ondorioz, auto-ilara luzeak sortu ziren bai Arrasaten baita inguruko herrietan ere. Adibidez, Bergarako noranzkoan, auto ilarak Bergarako saihesbideraino iritsi ziren. 09:00etan errepidearen errei bat zabaldu zuten eta 10:00etan bestea. Orduantxe arindu zen autoen joan-etorria.

Zerrajerako etxebizitzaren zozketa Arrasaten

U.M.

Joan den egunean etorri ziren Jaurilaritzako Etxebizitza Saileko ordezkariak Uarkapera, Zerrajerako etxebizitzaren zozketa egitera. Babes ofizialeko 100 etxebizitza zozketatu zituzten, 915 eskatzailearen artean. Eskatzaileak lau taldetan banatu zituzten, norberaren ezaugarrien arabera. Etxebizitzak ere ezaugarri horien arabera banatuko dituz-

te gero. Zozketa egunetan Etxebizitza sailburu Jabier Madrazok azaldu zuenez, datorren urteko bigarren seihilekoan beste 108 etxebizitza zozketatuko dituzte Arrasaten. Jabetzan hartzeko etxeak izango dira eta gaur egun Arrasate Musikal dagoen lekuan eraikiko dituzte. Horrez gainera, jakinarazi zuen babestutako beste 148 etxebizitza daudela zozketarako; horiek ere Zerrajeran eraikiko dituzte.



Jende asko izan zen Uarkapen, zozketaren emaitza jakin guran.

IKER BARANDIARAN

Babes ofizialeko etxebizitza eskuratu dutenen zerrenda

(Beheko zerrenda behin-behinekoa da, aldaketak egon daitezkeelako)

- | | |
|--------------------------------|------------------------------|
| Maria Carmen Agirreurreta | Luis Izquierdo |
| Agustin Agirreurreta | Gorka Izurrategi |
| Maria Pilar Agirrezabal | Gojuri Jausoro |
| Eva Maria Alvarez | Josu Juan |
| Eneko Alvarez | Ibon Larrañaga |
| Xabat Amiano | Juan Luis Lasa |
| Isabel Maria Anaya | Idoia Lazpita |
| Carmen Anguas | Jose Ignacio Lopez |
| Jose Ramon Aranbarri | Alex Marco |
| Jon Ugutz Aranbarri | Aurelio Matilla |
| Oskar Arana | Angel Maria Miguez |
| Belen Arce | Miguel Angel Molinero |
| Ekaitz Arrieta | Nerea Mondragon |
| Jesus Maria Barrena | Zorione Moraza |
| Armando Michael Den Bartolozzi | Jose Antonio Moreno |
| Francisco Bassercourt | Pablo Moto |
| Jose Antonio Bastardo | Diego Manuel Murillo |
| Mikel Beitia | Maria Josefa Murillo |
| Felix Maria Berasaluze | Gorka Nin |
| Jose Manuel Bergaretxe | Aitor Onandia |
| Begoña Campo | Andoni Orobengoa |
| Juan Manuel Carballido | Oscar Orue |
| Antonio Carenas | Ruth Osinaga |
| Ines Carmona | Igor Otadui |
| Manuel Carrasco | Jose Luis Otadui |
| Oscar Cuesta | Urtzi Pereda |
| Maria Isabel Davila | Maria Teresa Perez de Ziriza |
| Iban Diaz | Gabriel Portaló |
| Xabier Diez | Jon Pozo |
| Angel Duque | Aitor Kerejeta |
| Asier Egidazu | Pedro Maria Quintas |
| Lordi Elorza | Fernando Ramos |
| Asier Errasti | Concepcion Rey |
| Magdalena Errasti | Maria Jesus Rey |
| David Espinosa | Maria Elena Rocha |
| Miren Karnele Ezpeleta | Ricardo Rodriguez |
| Manuela Gajate | David Royo |
| Susana Galdos | Sergio Ruiz |
| Roberto Garai | Francisco Javier Saiz |
| Lhaj Ghaibat | Gemma San Martin |
| Javier Gordo | Manuela Sanabria |
| Roberto Gutierrez | Juan Carlos Sanchez |
| Ainara Hurtado | Angel Luis Sanjeronimo |
| Victor Manuel Hurtado | Francisco Jose Santin |
| Joaquin Hurtado | Lourdes Sebastian |
| Unai Idigoras | Joseba Solana |
| Carmen Iglesias | Ruth Trigas |
| Oscar Iglesias | Judith Unamuno |
| Aritz Iñiguez | Iñaki Vazquez |
| Alberto Iriarte | Jon Zubiria |

JOSERRA ASKASIBAR SAN MIGEL JAIETAKO OTARRAREN JABE

Joan den asteburuan ospatu zituzten Garagartzan San Migel jaiak, eta ohitura den moduan jende asko hurbildu zen Garagartzaraino buzkan-tzak jatera. Giro ezin hobea izan zen jaietan, eta auzo bazkarian atera zuten argazkiak erakusten du hori. Bertsolariak, umeendako jolasak, gura beste buzkan-tza... Gainera, otar ederra zozketatu zuten, eta Gesalibarko auzo alkate Joserra Askasibarrendako izan zen saria, berak zeukan-eta zenbaki saritua: 0451 zenbakia, hain zuzen.




1943AN JAIO ZIREN EMAKUMEEN BAZKARIAN, ONDO BAINO HOBETO

Argazkiko emakume koadrila horrek urtero egiten du bazkaria, eta aurten Hostalean izan dira. Guztiek dute ezaugarri komun bat: urte berekoak direla. Horrelako bazkari bat antolatzeko eguna aukeratzeari ez da kontu erraza, eta aurtengo bazkaria irailaren 18an egin zuten. Goizean meza entzun zuten San Juan Parrokian, eta handik Hostalerako bidea hartu zuten. Bazkarian ederto pasatu zuten, baina esan digute aurten jende asko igarri dutela faltan. Hortaz, aurten joan ez direnak datorren urtean ager daitezela gura dute.



14.000 EURO BANATU DITUZTE SARITAN MONTEKO PORRAN

Ane izeneko apustuak eskuratu du Monten egin duten Espainia-ko Itzuliko porrako lehen saria, eta sarituak 5.928 euro irabazi ditu. Bigarren sarituak ere ez du sari makala jaso, 3.705 euro izan dira-eta Katxon2 izeneko apustuarendako. Hirugarren saritua, berriz, Calzafouces izan da, eta 1.852 euro jaso ditu. Horiek ez ziren izan, baina, Monte tabernan eguazten arratsaldean banatu zituzten sari bakarrak, lehenengo hamar sailkatuendako, izan ziren-eta sariak. Gainontzeko sarituek 370 euroko saria jaso zuten. Tourrean bezala, Vueltan ere inoiz baino parte-hartze handiagoa izan da.



Elgeta-Piel

Domingo Iturbe 8
ELGETA
943 76 81 12

*Udazkena
eta negua
iritsi dira
Elgeta
Pielera*

**Martitzenetik zapatura:
17:00-20:00.
Domekak:
11:00-13:30.
Astelehenetan itxita.**



**Maritxu Kajoi 2004
saio berezia**



Goitb
Goiena Telebista

**Urriak 5 martitzena
20:30ean**

Ikustekoa!

BOTEPRONTUEN

Kepa Lizarralde

AED-KO KULTURA TEKNIKARIXE

XABIER URZELAI

Humanidade eta Enpresa ikasketak egin euen Kepak Eskoriatzan, eta Fagorren eta Arizmendin lan egin eta gero, AEDn hirugarren urtie hasi dau oin. Mondraguetik Aramaixora juen zan bizi izetera, eta oin ez da atrebiduten mondraguetarra edo aramaioarra dan esatera, badaezpada be.

AEDkuok zetan zabitze lanien?

Oporretatik bueltan lanpetute ibiltten gare. Hiru Haundixetako mendi martxie prepartan, udazkenien izen biher dien kontzertu, bertso afari eta bestelakuek prepartan, literatura lehiaketie, Jokin Zaitegi itzulpen sarixe...

Euskerien alde lan egitten, zela dau Mondraguen euskerie?

Txarto esan biher, euskaldun asko egonda euskeraz oso gutxi egitten doguleko.

Hortan, dakigunok be ez dogu egitten.

Oso gutxi egitten dogu, eta kalien igerrri egitten da hori. Dakigun danok egingo bageu...

Eta, zelan dau Mondragueko euskerie?

Geuk egitten dogune Mondragueko euskerie da, euskera batuen ez doguleko berba egitten. Eta, egixe esateko hanka-sartze galantak egitten dogu, berbuekin batez be, leikedozu eta holakuekin.

Ez dakixenei zela animau ikestera?

Dakigunok egitten, ejenplue emuten eta bihera sortzen.

Eta dakixenei egittera?

Lepotik heldute!!! (Barre)

Enpresetan euskerie ze egeratan dau?

Pentsetan dot enpresa bakoxta mundu bat izengo dala, eta hor be danetik egongo da. Baiñe leku askotan itxurie emutiarren zainketan daue euskerie, eta gero kasu gutxi egitten jako. Ulerketan ez dotena da enpresek diru mordue gastetan dauela euskerien gaineko planetan, eta gero ez daue euskerie jakittie baldintza moduen ipintten. Horrek ez dauko zentzu haundirik.

AEDko kultura arluen lanien



"Mondraguen, euskerien egoerie ez da ona; batez be dakigunok egitten ez doguleko"

ibilitte, Mondragueko kultura eskaintzan gainien ezer esateko?

Zelako preguntie! Esango neuke Mondrague moduko herri batek eskaintza handixae biher dauela, jente asko bizi da-eta Mondraguen. Adibidez, faltan ikusten dot etenbariko kultura eskaintza egongo dan leku bat eukittie, euskaltzalion artien erreferente izengo dana.

Lanien zerek emuten dutzu buruko-miñe?

Jentien atzetik ibilli biherak. Lana alde batera itxitte, ze falta jako Mondragueri?

Lehenau esaten ahaleginddu nazena argixau esanda, euskaltzalion erreferente izengo litzaken

"Euskaltzalion erreferente izengo litzaken Kafe Antzoki moduko bat igerten dot faltan"

Kafe Antzoki moduko bat, adibidez.

Eta, ze dauko ona?

Jentie, esan biherko dot!

Ze falta jatzu zeuri?

Denporie.

Eta, ze dauketzu sobran?

Astelehen baten zeuri aguantetako pazientzia! (Barre)

Pelikula bat. Liburu bat. Musika talde bat.

Te doy mis ojos / Zoririk ez / Gatibu.

Maritxuri bisitarik egitteko asmorik?

Biherko! Ohittura onak ezin die galdu.

Eta, milagruie eskaketakotan, ze?

Euskal Herri euskaldune!

NIREBIDAIAHURA / Jon Sagasta


Kanadara / 2004ko udan

Jon Sagastak bi hilabete eta erdi egin berri ditu Kanadan: "Osabaren bitartez Ternuara joateko aukera izan nuen. Kontua da Ternuako lagun bat euren historia aztertzen dabilela, eta badirudi euskaldunok zeresan handia izan dugula horretan. Euskaldunekin duten harremana sendotu egin gura dutenez, hara joatera gonbidatu ninduten, eta trukean nik hemengo informazioa, liburuak, argazkiak, bideoak eta ahal izan nuen guztia eraman nuen".

Ekainaren 30ean hartu zuen Jonek Ternuarako bidea: "Bidaia nekagarria izan zen, lau egun behar izan nituen-eta Ternuara iristeko". Jonek lehenengo hiru egunak Ternuan egin zituen, baina Labradorera joan zen gero: "Ternuako lagunari esker lana aurkitu nuen Labradorren, arkeologia proiektu batean. Lasai egiten genuen lan: lurra kendu, eta zerbait topatutakoan neurtu eta sailkatu. Egiten nuen lanaren truke logela bat utzi zidaten hotel batean, eta jatekoa ematen zidaten."

Lana amaitutakoan, arratsaldean inguruak bisitatzeko aprobetxatzen zituen: "Lehenengo astean, haizeak nondik nora jotzen zuen ere ez nekienez, hemen egiten dudana egin nuen: tabernatara joan. Tabernetan, baina, ez zegoen gazte jenderik. Bigarren astetik aurrera hara eta hona ibili nintzen, argazki kamera hartu eta lekuak bisitatzeko."

Ternua eta Labradorren ganean ohar bat: "Paraje oso politikak daude, baina han erraza da aspertzea. Jendea oso-oso jatorra da; ezagutzen ez baninduten ere herritarrek agurtu egiten ninduten. Kaltetik oinez joanez gero, etxetik irten eta garagardo batera gonbidatzeko gauza dira. Ez dakit, baina, oso jatorrak direlako edo erabat aspertuta daudelako egiten duten hori".



"Labradorren hilabete eman nuen arkeologoekin lanean"

"Paraje ederrak daude han, baina erraza da aspertzea"

XABIER URZELAI



Labradorren ateratako argazkia, arkeologia proiektuan lanean.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



Hilarion jatetxea-taberna

Larrea plaza 5 • ARRASATE • 943 77 01 69

Eguneko menuak
Karta zabala



Era guztietako bazkari eta afariak
Talde gazteendako prezio bereziak
Plater konbinatuak / Ogitartekoak / Sandwichak



ERDIKO KALEA 14 ARRASATE
943 79 46 94



SAVE THE QUEEN!



Eraman dotoresuna zure etxera



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 • OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 •
Faxa: 943 78 15 51



zalden lekuan zaldela,
ondo pasatu martxutani





GUPE LEKU

JAI ZALE

ITZALA

EKAITZ

BRANKA

BOLINETE

LORATEGI

RUMBA

BIONA

BASATI

MONTE

BENGOA

BRANKA

EXPRESS

AMETS

IRATI


ETXEAN NAHI DITUGU!



JON AGIRRE



JOSU URIBETXEBARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



KEPA URRIA



JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT



AMAIA ARRIETA



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



JOSE GABRIEL URIZAR



ARATZ GOMEZ



TXUS GOIKOETXEA



SAIOA ALZUA ETA GAIZKA AZKARATE



IGOR LETONA

ERREFUXIATUAK

Arrasateko Alde
Zaharreko tabernak:
Irati, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz,
Biona, Basati, Kimetz



Joan den astean norgehiagoka aspergarria jokatu zuten Mondrak eta Trintxerpek (0-0).

AITOR LIZARRALDE

FUTBOLA

Real Unionen kontra ahaleginduko da Mondra goiko postuei heltzen

Real Unionek ez du onartu ordutegi aldaketarik; Arrasatekoek zaindu egin beharko dute gaur

XABIER URZELAI

Real Uniongo bigarren taldearen kontra jokatu du bihar, 17:30ean, Mondrak. Maritxu Kajoi izanda, arrasatearrak ahalegindu dira eguna aldatzen, baina Real Unionek ez du horrelakorik onartu. Gainera, Gal futbol zelaiaren anexoan jokatu dute.

Domekan eskuratutako puntuekin Mondra sailkapenaren erdi-erdian dago, sei puntuekin. Orioko da liderra, Mondrak baino hiru puntu gehiago ditu, eta, alde txikia bada ere, arrasatearrek

ahalegindu egin behar dute goialdeko erreferentzia ez galtzen, goikoak urruntzen direnean gaitza da-eta behetik gora egitea.

REAL UNION: ORAIN ARTE MAKAL

Real Union izen handiko taldea da, baina bigarren taldeak ez du txapelketa gura moduan hasi. Joan den urtean zortzigarren postuan amaitsu zuten liga, baina aurten neurria hartu ezinda dabil-tza, batez ere etxetik kanpo jokatzeko dutenean. Hori, baina, ez da oraingo asteburuko kontua, Real Unionen eta Mondraren arteko zeingehiagoka Gal futbol zelaiaren jokatu dute-eta. Oraingo aste-

buruko kontrarioak norgehiagoka irabazteko asmoarekin jokatzen badu, Mondrarendako hobeto. Badirudi kontraesana dela, baina joan den astean Trintxerpek izan zuen jarrera izanda, hobe da erasora egin gura duen talde bat izatea aurrez aurre, domekan Atxabalpen izan zen bisitariak defendatzea baino ez zuen-eta buruan. Eta, horrela beti da zailagoa norgehiagoka ikusgarria egitea, eta baita partidua irabaztea ere. Atxabalpe aldera hurbildu ziren jarraitzaileek ia bi ordu egin zituzten aspertuta: kanpotarrak defendatzen, eta etxeok erasoan asmatu ezinda.

ZALDIBARKO ARETO FUTBOL TXAPELKETA

Datorren astelehena eta martitzena izango dira txapelketan izena emateko egunak

Zaldibarko Areta Futbol Txapelketan izena eman gura duten taldeek argi ibili behar dute, datorren astelehena, urriak 4, eta martitzena, urriak 5, dira-eta horretarako egunak. Egun horietan, antolatzaileak Monterron jauregian izango dira taldeen izenak hartzen, 19:30etik 20:30era arte.

Txapelketa, berriz, hurrengo asteburuan hasiko dute, urriaren 16an, hain zuzen. Alde horretatik, antolatzaileek ahalegina egin dute txapelketa ahalik eta azkarren hasteko.

FOTOKIROLA



Besaiderekin Aran ibarrera

Besaide Mendi Elkarteak irteera antolatu du, Aran ibarrean (Pirinioak) dagoen Carros de Foc izeneko mendi zeharkaldia egiteko. Irteera urriaren 9an izango da, egubakoitza, 06:00etan, eta urriaren 12an iritsiko dira, martitzena. Zeharkaldia lau eguneko izango da, eta gauak bidean dauden aterpetxeetan igaroko dituzte. Mendi zeharkaldi horretan izena eman gura duenak datorren martitzenean, urriak 5, eman beharko du izena Besaideren egoitzan, 19:30etik 20:30era arte. /X.U.

ERRUGBIA

Liga hasiera gogorra Santanderren

Arrasate Errugbi Taldeak Santanderko Independienteren kontra hasiko du Liga Txapelketa

X.U.

Domeka eguerdian hasiko du Arrasate Errugbi Taldeak aurten Liga Txapelketa. Santanderren estreinatuko dira maila berrian, eta kontrario gogorra izango badute ere, animurik ez zaie falta.

Gauzak diren moduan: Arrasateko mutilek badakite lehen mailako B multzoan jokatu aurretik kontrario gogorrek izan behar dituztela. Aspaldi ez du etxeko taldeak horren maila gogorrean jokatu, eta jakin badakite mailari eusteko gogor egin beharko

dutela lan. Eta, aurre-denboraldian jokatu dituzten lagun arteko partiduek erakusten dute hori, arrasatearrek ez dute-eta emaitza onik eskuratu.

Hori guztiori jakinda, baina, aurten jokatu duten mailan ibiltzea luxua da, eta esperientzia aberasgarria izango da maila horretako talde eta jokalarien kontra indarrak neurtzea.

BEHERA EZ EGITEA, EZINBESTEKOA

Taldeak dagoeneko badaki zernolako denboraldia izango duen aurrean. Orain arte maila txikiagotan ibili dira, eta irabazte-rahututa zeudela esatea asko esa-

tea bada ere, Liga Txapelketa txukunak egin dituzte. Aurten, baina, txanponaren beste alde bizi izango dute, eta ezinbestekoa izango da sailkapenean behealdean egon eta motibatuta jarraitzea.

HASIERA GOGORRA

Arrasatekoek Santanderko Independienteren kontra jokatuko dute lehenengo norgehiagoka, eta Santanderkoak txapelketako kontrario gogorrene-takoak izango dira. Eurek gura izan ez dutelako ez dira gorago mailara igo, joan den urtean txapelketa borobila egin zuten-eta; horrekin dena dago esanda.



ARRASATE ERRUGBI TALDEA

Aurre-denboraldian taldeak ez du gura moduko mailarik erakutsi.

Arrasateko Herensugeak taldea Valladoliden izan da asteburuan

XABIER URZELAI

Arrasateko beterrano mailako errugbi jokalaria Valladoliden izan dira asteburuan, lagun arteko norgehiagoka jokatzen. Quesos Entrepinares taldeak gonbidatuta joan dira hara, eta ondo baino hobeto igaro dute asteburua Gaztelako lurretan.

Denboraldian zehar, Arrasateko Herensugeak beterranoen taldeak lagun arteko topaketa askotan hartzen du esku. Askotan etortzen dira kanpotarrak Arrasatera gonbidatuta, eta beste askotan arrasatearrak joaten dira kanpora. Joan den asteburuan Valladolideko Quesos Entrepinares taldeak gonbidatuta asteburu pasa egin zuten Valladoliden. Lagun arteko norgehiagoka 17:00etan jokatu zuten, eta nahiko izerdi bota eta gero, hango janari, edari eta bertako giroaz gozatu ahal izan zuten.

Domekan, berriz, Fuensaldaña herrian dagoen upeltegi batean izan ziren bazkaltzen, eta iluntzean iritsi ziren Arrasatera, asteburu ederra igaro eta gero.

ESKUBALOIKOEK ATSEDENA

Gaur Maritxu Kajoi jaia ospatuko dutenez, Arrasateko Eskubaloi



HERENSUGEAK TALDEA

Arrasateko hogeita bost lagun izan dira asteburuan Valladoliden.

Taldekoek erabaki dute oraingo asteburuan jokatu behar zuten Liga Txapelketako lehenengo norgehiagoka atzeratzea. Hala, Arrasateko taldeak deskantsua izango dute, eta datorren asteburuan hasiko dute txapelketa.

Horrez gain, baina, Arrasate Eskubaloi Taldeak eskerrak eman gura dizkie joan den astean Jesus Mari Herrero Pitxi-ren omenaldian izan ziren herritar guztiei, bai

ta omenaldian parte hartu zuten lagunei ere.

Eskubaloi jaialdi ederra izan zen, eta momentu hunkigarriak bizi izan bazituzten ere, lagun arteko norgehiagokak hasi zirenean giroa erabat alaitu zen, batez ere beterranoek elkarren kontra jokatu zutenean. Urte askoan jokatu barik egon eta gero, batek baino gehiagok berriro jokatzen haste-ko moduan dagoela erakutsi zuen.

FOTOKIROLA



Caja Rural Ardoynen kontra, domekan

Mugarri Alkesa Arrasate Saskibalo Taldeak ezohiko ordutegia izango du oraingo asteburuko norgehiagokan, domeka eguerdian jokatuko dute eta Iturripen. Horrela, arrasatearrek lasaigo ospatu ahal izango dute Maritxu Kajoi jaia. Ez da komeni, baina, domekako norgehiagokara biharamun handiarekin joatea, joan den astean Arrasatekoek ez zuten eta Liga Txapelketa gura moduan hasi. Atletico San Sebastian gehiago izan zen, bost puntuko aldearekin irabazi zuten (81-76). /X.U.

FOTOKIROLA



Arrasateko Solano Txiki taldea hirugarren Briviescako txapelketan

Joan den asteburuan egin zuten Briviescan (Burgos) futbol zazpiko txapelketa, eta esku hartu zuten taldeen artean Arrasateko talde bat zegoen, Solano Txiki. Arrasatearrek txapelketa polita egin zuten, hirugarren postuan sailkatu ziren eta. Zortzi taldek hartu zuten parte txapelketan: Burgos Promesas, Principe de España, Vadillos, Casco Viejo, Briviesca A, Briviesca B, Gazteak eta Solano Txiki taldeak. Kanporaketak goizean egin zituzten, eta arratsaldean bi norgehiagoka jokatu zituzten: hirugarren eta laugarren postuetatik lehiatzeko lehena, eta txapelketako finala bigarrena. Solano Txikiok ez zuten finalera sailkatzerik izan, baina hirugarren sailkatu ziren Briviesca B taldeari 10-0 irabazita. /X.U.

AUKEA

Maritxu Kajoi dela-eta ordutegi bereziak izango dira kiroldegi eta pilotalekuan

AUKEA kirol elkarteak aditzera eman duenez, gaur, urriak 1, Maritxu Kajoi jaia dela-eta Musakolako kiroldegiko eta Uarkapeko pilotalekuko ordutegia berezia izango da. Kiroldegiak eta pilotalekuak normalean baino lehenago itxiko dituzte ateak, 19:30ean, hain zuzen. Irekitzeko ordua, baina, ohikoa izango dute.

Horrez gain, Iturripeko kiroldegia goizez irekita egongo da, baina arratsaldean itxita egongo da. Informazio zabalagoa gura izanez gero, deitu 943 77 16 17 telefonora.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

SASKIBALOA

Mugarri Alkesa Arrasate - Caja Rural Ardoi
Seniorrak, domekan, 12:00. Iturripen.

Mugarri Alkesa Arrasate - Easo B
Kadeteak, domekan, 17:00. Iturripen.

FUTBOLA

Real Union - Mondra
Preferentea, Zapatuan, 17:30. Irunen.

Mariño - Mondra
Ohor. Gazt. Zapatuan, 19:30. Irunen.

Arrasate - Lengokoak
Lehen. Gazteak, Domekan, 12:00. Atxabalpen.

Arrasate - Kostkas Miren
Ohor. Kadeteak, Zapatuan, 16:30. Atxabalpen.

Arrasate - Bergara
Lehen. Infant. Domekan, 09:45. Atxabalpen.

Ilintxa - Mondra
Emakumeak, Zapatuan, 18:30. Legazpin.

ERRUGBIA

Santanderko Ind. - Arrasate

Seniorrak, Zapatuan, 17:00. Santanderren.

ESKUBALOA

Deskantsua dute.

EMAITZAK

FUTBOLA

Preferentea: Mondra - Trintxerpe 0-0

Ohor. gazte maila: Mondra - Urola 3-0

Lehen mailako gazteak: Urola - Arrasate 1-1

Ohorezko kadeteak: Baskonia - Arrasate 7-1

Emakumeak: Mondra - Bergara 2-2

SASKIBALOA

Seniorrak: Atco. S.S. - Mugarri Alkesa 81-76

Kadeteak: Loloia A - Mugarri Alkesa 49-70

ZINEMA/ Zehaztu dituzte Amaia Udal Antzokiko film emanaldiak

Eguenetan zinekluba, eta egubakoitzetik astelehenera, film komertzialak

IKER BARANDIARAN

Udaleko Kultura Sailak dagoneko zehaztu du datozen hilabeteetako film eskaintza. Urriaren 7tik aurrera, eguenero, zinekluba egingo dute, 20:30ean. Film komertzialak, berriz, egubakoitzetik astelehenera bitartean emango dituzte, hainbat orduetan.

Hainbat herritarren eskaera bete egin da: zinekluba eguenean egingo dute, urte askoan egin zuten moduan. Hala ere, batek baino gehiagok 21:00etan emateko eskatu zuten, baina azkenean eguene-tako film emanaldiak 20:30ean izango dira.

Eguenetan zinekluba eta egubakoitzetik astelehenera bitartean, film komertzialak. Horrez gain, ia domekero umeendako filmak emango dituzte. Plangintza hori datorren eguenean, urriaren 7an, hasiko da. Hori baino lehenago, bihar, zapatua, eta etzi, *El último beso* filma emango dute Amaia Udal Antzokian.

Bihar, zapatua, 19:30ean eta 22:00etan izango dira emanaldiak. *El último beso* komedia da, eta Gabriele Muccinok (*Ecco Fatto, Ricordati di me...*) zuzendu du. 115 minutu irauten du.

Hainbat lagunek ezustean tril egingo dute, eta istorio bat



ARRASATE PRESS

El último beso komedia italiarrak hainbat sari jaso ditu atzerrian.

osatu dute. Francesca gazte-txoa Carlotz maiteminduko da, baina Carlotz Giuliarekin ezkontzeko asmoa dauka. Giuliararen ama, Anna, berriz, zahartzen hasi den beldur da, eta ez du gaz-

tetasuna bukatu gura. Horregatik, zerbait egin beharrean dago.

Protagonistak honako hauek dira: Stefano Accordi (*Capitanes de abril; El hada ignorante...*), Stefania Sandrelli (*La otra cara*

de la luna; Volavérunt...) eta beste batzuk. Film horrek Italian eta Sundanceko jaialdian sari garrantzitsuak jaso zituen, eta oso harre-ona izan zuen Italian.

Etzi, domeka, *Spiderman 2* filma emango dute umeendako. 17:00etan izango da. Protagonistak armiarman ezaugarriak ditu, eta gaizkiaren aurka gogor egingo du.

XVII. MENDEAN GIROTUTAKO DRAMA

Datorren eguenean, urriaren 7an, *La joven de la perla* filma emango dute, 20:30ean. Drama horren zuzendaria Peter Webber da, eta filmak 95 minutu irauten du.

Filma izen bereko eleberri baten oinarrituta dago. Liburuaren egilea Tracy Chevalier da. XVII. mendean, Griet gazte-txoaen aita itsu geldituko da, eta Griet Vermeer margolariaren etxean zerbitzari lanean hasi beharko du. Bi lagun artean oso harreman berezia sortuko da, eta Vermeerren alaba jelskor jarriko da.

Protagonistak hauek dira: Colin Firth (*El diario de Bridget Jones; Love actually...*) eta Scarlett Johanson (*Lost in translation; Ghost world; El hombre que susurraba a los caballos...*).

Datorren egubakoitzean, hilaren 8an, *La Terminal* emango dute.

KULTURAPILULAK

Taila ikastaroa iragarri dute urrirako

Arrasateko Tailaginen Elkar-teak tailaren hobetze ikastaroa antolatu du. Urriaren 18an hasiko da eta abenduaren 2ra arte iraungo du. Guztira, 30 ordu emango dituzte. Matrikula 50 euro izango da. 943 79 86 95 (Kaxintto).

Musakolan eskulan ikastaroa egingo du Ekin Emakumeak

Ekin Emakumeak elkar-teak eskulan ikastaroa egingo du Musakolan, Maisu Aranbarri plazaren 4. zenbakian. 10-12 lagunek osatutako taldetxoan egurra, laminak, margotzea, birziklatzea, zilarra, eztainua eta beste landuko dituzte. Urriaren 5etik abenduaren 14ra arte egingo dute. Eman izena urriaren 4a aurretik.

Kanpingags taldearen 'Ezetx lepoa jarri' lana

Urriaren 17an, domeka, Kanpingags antzerki taldeak *Ezetx lepoa jarri* ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian. 19:30ean izango da eta honako aktoreek esku hartuko dute: Kontxu Odriozolak, Joseba Apaolazak, Asier Hormazak, Patxi Barco, Ainhoa Aierbek eta Kiko Jauregik, hain zuzen ere.

San Juanetan egin beharreko dantza ikuskizuna, urrian

Udaleko Kultura Sailak adituzera eman du Aukeran dantza taldeak San Juanetan egin beharreko *Izena duen guztia omen da* dantza ikuskizuna urriaren 24an egingo dutela. Amaia Udal Antzokian izango da. San Juanetan, euriaren ondorioz, ikuskizuna bertan behera gelditu zen, eta egun aldaketa hitzartu zuten.

Film eskaintza zabala urrian emango dutena

Iragarritako moduan, urrian Amaia Udal Antzokian hainbat film emango dituzte. Eguenetan, zineklubean, honako hauek: *Intermission, Ladykillers* eta *El domingo si Dios quiere*. Asteburuetan, beste hauek: *Las mujeres perfectas, Catwoman* eta *Kill Bill 2*; eta umeen saioetan, *Shin Chan 2, Thunderbirds, Scooby Doo 2* eta *Zafarrancho en el rancho*.

Euskaldun berriek euskaraz berba egiteko espazioak sortu gura ditu Zahar Berrik

Euskaltegien ikasturtearekin batera, Zahar Berri lanean hasi da berriro. Euskaldun zaharrek eta berri osatutako berba taldeak osatzen hasia da, eta ikasturte honetan ere hainbat ekintza antolatuko ditu. Asmoa da aisialdia egin eta euskaraz berba egiteko aukerak ematea.

Zahar Berrik urteak daramatza euskaraz berba egiteko aukera txikiak dituztenei laguntza ematen. Horretarako, bi ildo nagusi ditu: bata, berba taldea eta beste, berba lagunak. Berba taldea euskaldun berriek eta euskaldun zaharrek osatzen dute. Boluntarioek AEDn ematen dute izena, eta hilean behin ekintzak egiten dituzte. Esaterako, joan den urtean, Kimuak taldeak antolatutako euskarazko film laburrak ikustera joan ziren, *Mugarritz Mugarri* ekimenean esku hartu zuten eta bertso afariak egin zituzten. Zahar Berriko arduradun Ibaik azpimarratu duen moduan,

“aisialdia egiteaz bat, euskaraz berba egiteko aukera dute taldeko kideek”.

Ikasturte honetako lehenengo ekintza urriaren 15ean egingo dute. AEDko txokoan bertso afaria egingo dute. Bertsolari hauek esku hartuko dute: Enaitz Alustizak, Jokin Labayenek eta Iñigo Arzellusek, hain zuzen ere. Afari hori berba taldekoei zuzenduta dago, eta, bide batez, ekimenearekin bat egin duten lagun berriak ezagutuko dituzte.

BERBA LAGUNAK, TALDE TXIKIAN

Aipatutako berba taldeaz gain, berba lagun figura ere badute. Noizbehinka elkartu, aisialdiaz gozatu eta berrikerian egiteko bikote, hirukote edo laukoteak.

Euskara ikasten dabilen hainbat lagun edo euskara ikasita duten baina gaur egun praktikatu gura duten lagunak premia hori izaten dute. Horregatik Zahar Berri saiatzen da lagun horiek euskaldun zaharrek harremanetan jartzen, noizbehinka elkar daitezen.



Berba taldeak ekintzak egiten ditu hilero.

AED ELKARTEA

E, TXO!

ELKARRIZKETA

TXIKILANDIARAKO BEGIRALE
DEIALDIA EGIN DUTE

Txatxilipurdi elkarteak Txikilandia Gabonetako jolasparke erraldoirako begirale deialdia egin du. Izena emateko azkeneko eguna azaroaren 26a izango da. Esku hartzeko baldintza bakarra da gutxienez 18 urte beteta izatea. Hortik gorakoek ere aukera dute, jakina. Interesatuak NAREN fotokopia eta argazki txiki bat aurkeztu beharko dituzte. Txatxilipurdiren bulegoan (Pablo Uranga, 14) fitxa bete beharko dute.

EUSKAL MUSIKA TALDEEN
GIDA EGIN GURA DUTE

Gaztesareak gida osatu gura du inongo diskoetxe-ekin kontraturik ez daukaten Euskal Herriko musika taldeekin. Gida horren helburua da musika talde gazteak (diskorik argitaratu ez dutenak edo diskoetxe alternatiboekin soilik editatzen dutenak) liburuxka batean batu eta eurekin harremanetan jartzeko erraztasunak ematea. Honako helbidea eskura daiteke bete beharreko fitxa: www.musikagida.gaztesarea.net Bestela, honako informazioa bidali beharko da musikagida@gaztesarea.net helbidera: taldearen izena, taldeko izena, taldearen bilakaera eta aurkezpen testua, argazkia eta kontaktua. Izena emateko azkeneko eguna urriaren 28a izango da.

LUDOTEKETARA JOATEKO
TXARTELA EZINBESTEKOA

Gaurtik (egubakoitza) aurrera, Okendoko eta Santa Marinako ludoteketako zerbitzua erabiltzeko ezinbestekoa izango da erabiltzaile txartela izatea. Interesatuak Txatxilipurdik kudeatzen dituen ludoteka horietan atera dezakete txartela.

LAURA IRIZAR/'BASETXE K'-KO LEHIAKIDEA

"Ganoraz jatea, dutxa hartzea eta hortzak garbitzea igarri nituen faltan, batez ere"

ARRASATE IRRATIA/IKER BARANDIARAN

Laura Irizar arrasatearra *Basetxea K* lehiaketan izan da. Hilabete egin zuen mendian, baserritarren moduan bizitzen, eta oso esperientzia ona bizi izan duela diosku. ETB1en astelehenero ikus dezakegu.

Joan den astelehenean ikusi
zenuen zure burua lehenengo
aldiz telebistan, ezta?

Bai. Gogor samarra izan zen nire burua hor ikustea.

Zer sentitzen da, lotsa,
damua...?

Ez da lotsa, ezta damua ere. Nork bere burua telebistan ikustea eta entzutea oso arraroa da. Halako galderak etorri zitzaizkidan: "Hori naiz ni?", "horrelakoa naiz ni?"... Lagunei eta familia-koei galdetu nien ea natural ikusi ninduten, eta baietz erantzun zidaten. Damua eta lotsa ez, norbera ez da lotsatu behar egiten dituen gauzengatik. Arraroena da zure burua hor ikustea.

Eta zer esan dizute inguru-
koek?


Nahiko ondo ikusi nautela, ni naizen modukoa. Hasieran arraro egin zitzaien hor ikustea, ezezagunekin eta baserritar jantzi-ta. Niri eurei baino arraroago egiten zait hor ikustea.

Arrasatear askok ikusiko
zuten aurtengo *Basetxea K*, bai-
na azaldu zertan datzan.

Aurtengo *Basetxea K* karrantzian kokatuta dago, oso leku politean. Lehen baserritarrak bizi ziren moduan bizi behar izan dugu gutxi gorabehera: animaliekin, lanabesekin...

Gaur praka bakeroekin eto-
rri zara. Gustura jantziko zeni-
tuen, ezta?

Bai, (Barre) oso gustura. Faltan igarri dut nire arropa jantzea, dutxa hartzea, hortzak garbitzea, komuna eta ohea erabiltzea... Saioan, hilabete osoan, baserritar arropak erabili geni-



"Lagunek 'casting'-era zihozela esan zidaten, baina azkenean bakarrik joan nintzen"

"Hilabete osoan arropa bera eramaten ohitu beharra dago. Bustiz gero, arazoa zen"

tuen. Hasieran abarkak oso deserosoak ziren mendian ibiltzeko, baina gero ohitu egin ginen, eta etxeko zapatilekin ibiltzea bezala zen. Arazoa zen bustitzen ginean aldatzekorik ez geneukala.

Lehenengo saioan gona jantzi-
ta hasi zinen, baina prakekin
bukatu zenuen.

Bai, neskek abantaila genuen. Neskei eman ziguten zakutoan, gonaz eta amantalaz gain, mahoizko prakak eta alkandorak ere sartu zizkiguten, lanak egiteko. Mutilek, berriz, ez zuten aldatzekorik. Eta horrek garrantzi handia zuen.

Zelan sartu zinen saltsa
horretan?

Besterik barik. Ezagun batzuek *casting*-era zihozela esan zidaten eta neuk ere baiezkota eman nuen. Azkenean lagunek atzera egin zuten, eta bakarrik joan nintzen probara. Ez nuen espero hartuko nindutenik, eta egia esanda, oso esperientzia polita izan da.

Gogorra izan zen bigarren
egunean lagun bat kanporatzea?

Bai, oso gogorra. Oraindik ez genuen taldean elkar ezagutzen, eta ez geneukan bata edo bestea botatzeko arrazoi nahikorik. Laguna kanporatu ostean gogota egin nuen: zein txarto sentituko nintzen ni izanez gero. Hain azkar eta ia aukera barik kanporatua izatea.

Orain dela bi egubakoitz
heldu zinen etxera. Zer egin
zenuen lehenengo?

Etxera joan aurretik, kalera jo nuen lagunena bila, ustekabea emateko. Eurekin egon ostean, etxera joan nintzen eta patata-tortilla jan nuen gauerdian. Jana buruan izan dut denbora guztian. Hori eta higieena. Komunean eseri nintzen eta pentsatu nuen: "Hilabete bat komuna erabili barik". Zer sentsazio arraroa den ohiko bizimodura bueltatzea. Hasieran etxean txarto egiten nuen lo, eguneko argira ohituta nengoelako.


DANBAKA))))))

DEBAGOIENKO I. MUSIKA LEHIAKETA

Parte har ezazu
Goienak eta
Espaloia Kafe Antzokiak
antolatzen duten musika lehiaketan

Estilo guztiak ditugu gustuko, zuena
ere bai!

ZAHARRAREN ETXETIK



Erretiratuak oso gustura ibiltzen dira gimnasia eskoletan.

Uribarri elkarteko erretiratuek ekin diete gimnasia eskolei Iturripen

IKER BARANDIARAN

Uribarriko erretiratuak gogor ibiltzen dira astean hiru egunetan ariketa fisikoa egiten: astelehenetan, martitzenetan eta eguenetan. Azkeneko hiruzpatalau urteotan Iturripen kiroldegian egin dute. Baina opor ostean, ikasturtea hastera zihoala, Iturripen kiroldegian hobetze lanak egin behar izan zituzten. Horregatik, lehengo asteetan elkartearen azpian, Usaetxe plazan, egin zituzten eskolak, beste lekurik ez zutelako.

Gimnasiako eskolen ardura dumen esanetan, Iturripenko hobetze lanen ondorioz, ez zituzten eskolak eten gura eta elkartearen azpian duten etxabea erabiltzen hasi ziren. "Borondate onenarekin antolatu zuten hemen, baina leku txikiegia da eta guztiok sartzeko zailtasunak izan ditugu. Izan ere, gero eta lagun gehiago gabilta Uribarri ariketa fisikoa egiten", azaldu zigun zerbitzu horren erabiltzaileetako batek.

Zorionez, Iturripen kiroldegiko lanak bukatu dituzte, eta martitzenean hasi ziren erretiratuak ariketa fisikoa hantxe egiten. Beraz, normaltasunera bueltatu da guztia.

ELASTIKOTASUNA LANTZEN DUTE

Urteak daramate Uribarri elkartearen gimnasia eskolak ematen. Azoka dagoen egunetan jai hartzen dute, eta gainontzekoetan egiten dute.

Bi talde daude, eta bakoitzean 30 bat lagun dabilta. Gehienek urte asko daramatzate horretan eta oso gustura daude. "Ez dugu ariketa fisiko gogorrik egiten. Horren ordez, elastikotasu-

na lantzen dugu, eta igartzen da aldea, bai horixe", azaldu zigun ikastaroan dabilen lagun batek.

45 minutuko saioak izaten dira. Hasiera baten, beroketa eta luzatze ariketak egiten dituzte. Horren ostean, besteak beste, abdominalak indartzeko ariketak eta baloiekin hainbat jolas egiten dituzte. Irakaslea AUKE-Ak ipintzen du.

Bai irakasleak eta baita ere ikastaroko arduradunak ariketa fisikoa egiteko gomendioa egin dute. "Zahartzen garen heinean, bizkortasuna eta arintasuna galdu ohi dugu, eta astean birritan edo hiru aldiz eginez gero, osasunean irabazi egiten da".

Izan ere, herriko erretiratu asko dabilta horretan, eta baita gazteagoak ere bai.



Ez dute ariketa fisiko gogorrik egiten.

LABUR

Musakolako zaindariaren eta Toki Argiko ile-apaintzailearen lanpostuak, lehiaketara

Udalak aditzera eman du Musakolako elkarteko zaindariaren eta Toki Argiko ile-apaintziaren lanpostuak lehiaketara aterako dituela. Toki Argiko lanpostua ohiko prozeduran izan zen, baina errepikatu beharrean daude. Musakolako elkarteko egungo zaindariari abenduan bukatuko zaio kontratua, eta postu hori lehiaketara atera dute.

Zehaztasun guztiak Buletin Ofizialean kaleratuko dituzte, eta izenematea urrian izango da.

Bihar, zapatua, arrasatearrek Gipuzkoako Erretiratuen XIV. Ibilaldian esku hartuko dute

Bihar, zapatua, Gipuzkoako Erretiratuen XIV. Ibilaldia egingo dute Lazkaon. Gipuzkoako erretiratuen eta penstiodunen elkarteak antolatuta du, eta ehunka lagun batuko ditu.

Ibilaldiak zortzi kilometro eta erdiko luzera izango du, eta ez da lasterketa izango. Ibilaldi horretan ez dago irabazlerik, ezta azkarragorik. Ibiltzea eta ibilbidea bukatzea besterik ez dute eskatzen. Ibilaldiaren ostean, herri bazkaria egingo dute eta sariak zozketatuko dituzte.

Arrasateko erretiratuen elkarte bakoitzeko zortzi lagunek hartuko dute parte; guztira, 32 arrasatearrek.

Gripearen aurkako kanpainak abian jarraitzen du anbulatorioaren bitartez

Irailaren azkeneko egunetan sendagile eta erizainek auzoetan -auzo alkatezeta eta erretiratuen elkarteetan- eman dituzte txertoak, baina dagoeneko bukatu da horretarako epea.

Hala ere, gripearen aurkako kanpainak urriaren 31ra arte iraungo du, eta txertoa hartu gura duenak oraindik badu aukerarik. Anbulatorioan ematen dituzte, 09:00etatik 17:00etara. Komeni da gogoratzea ezinduek etxean jaso ahal izango dutela, eta sendagile edo erizainari deitu eta hari eskatu ahal izango diotela.




Azarora arte itxiko dute Uribarriko taberna

Atzo, irailaren 30a, bukatu zitzaion kontratua Uribarri elkarteko atezainari. Lagun horrek elkarte eta hango taberna kudeatu ditu. Orain Udalak lehiaketara aterako du lanpostu hori.

Lanpostu hori betetzeko prozedura egiten duten bitartean, Udalak elkarte itxi gura du eta konpontze lanak egingo dituzte. Aspalditik aireztatze sistemarekin arazoak dituzte, eta hori konponduko dute. Azaroan berriro zabalik egotea espero dute. Dena dela, lan horiek irauten duten bitartean, elkarteak antolatzen dituzten ekimenek aurrera jarraituko dute. /I.B.

Chume

Apainketa



Etxe giroan

EZETZASMATU



"MARTIXU KAJOI 25 URTE" LIBURUA

Noizkoa da irudiotako Maritxutako kartela?
Arrastoa: Maritxu zaindaria aurreneko miraria egin zuen.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Mendisol ekilore-olioa
Litro bat

0,78€ 130 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

VICTOR ARANA arendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Victor!
Galderen erantzun zuzena:
Monterron jauregian.


ARRASATEKO HISTORIA

Maritxu Kajoiaren gaineko zenbait kontu

"MARTIXU KAJOI 25 URTE" / KOMISIÑUE

Maritxu Kajoiaren inguruan anekdota ugari sortu izan dira jaia hasi zenetik gaur arte; horietako batzuk aukeratu ditugu oraingo honetan. Maritxu Kajoi Komisiñuek ateratako liburua erabili dugu horretarako:

"Goxeko 04:30ean sokamuturre egiteko asmue euen, bañe gaurak lelengotik okertu zien. Ganauek karteko ardurie euen Orozko ganauzañe gabeko 10etan agertu zan herrixan ta denporie sobra eukenez biher baño txikito gehixau hartu zittuen. Hala, ordu e ailegau zani en, Zumeta (abeltzaniñe) ez zan agertu ta komisiñokuek haren bille fan biher izen euien. Egoera hartan ganau bakarra soltau zan ta harek ihes egin euen. Zezen trebie Muxibar tabernarariño fan zan igesi ta jabiak eziñien jarraitu eutzon atzetik. Igesaldixen herritar ta auto kaltetu ugarri egon zan, asko ta asko hirunaka ta launaka anbulantzian fan biher izen euien. Ospitaleko "larrialdi zerbitzuak" guztiz paralizau zittuen igesien fan zan zezenak. Azkenien, Luixito Pagoaga komisiñoko kideiek harrapau euen zezena. Dana dala, igesaldixen torero lanak egiten animu zanik



"MARTIXU KAJOI 25 URTE" LIBURUA

"1978an Jose Markiegik korbata pilue emun zittuen, jentie dotore-dotore fateko. A ze detallie!"

be egon zan; Jose Guridi Agirreurretak Ortega Canoren testigie hartu euen ta". (1984)
Beste anekdota labur baina kurioso bat ere aurkitu dugu: "Jose Agustin Letona Ataxi eta Alberto Errasti Butakas Venezuelara juen zien 1992ko abuz-

"Gure amabirjinaren omenez, Maritxu Kajoi jaixe ospatu euien Nikaraguan, 1988an"

tuen. Han euzela, Jose Agustin Letonak Bolibar (5.007 m.) mendixen gaña egin euen, eta han Venezuelako *Libertadoria*-ren estatuari Maritxu Kajoin irudixe jarri eutzon buru gañien". Beste behin, Nikaraguaraino iritsi zen txikiteroen zaindaria: "Matagal-

pa herrixen, gure amabirjinaren omenez Maritxu Kajoi jaixe ospatu euien" (1988).

Bestalde, Maritxuk egindako mirarien artean ezagunenetari-koa da iturritik ardo ateraazi zuen lehen aldi hura, Maritxuk egin zuen aurreneko miraria izan zen (1981). Zera dio liburua: "Mirarixek gaztetxuenen artien sortu euen emozioñuek bultzatute, iturrira hurbildu ta gustora asko edan euien hango ardaue. Komisiñoko partaidiek haurren iraultza hari aurre egiteko ta guraso askon haserriek bareketako, eten egin biher izen euien ardaue jarixue. (...) Antolatzailek presuestue ordainketako tabernaz taberna fan biher izen euien diru eskien. Laguntzak batzeko kajien enkargaue Gorriti jarri euien". (...) Mirarixe posible izeteko, herriko ur sistemie manipulau ein biher izen zan. Ingu-ruetako auzuek ur barik geldittu zien. Bañe Maala kalien euen Aizkora tabernak, auzuetan ez letxe, ure sobra euki euen, hango tabernarixek harro asko esaten euen letxe. Halabe, handik urte bira, zorixe kontra jarri jakon ta herriko kaka danak komuneko zulotik gora urten eutzien, ta sufriru egin behar izen euen orduko ahaztute euen mirari haren eragine".

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko urriaren 1a / 123. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorlora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Datorren udan bota egingo dute Ibarako erreka zati batean eraiki duten pareta

UBANE MADERA

Pedro Ignacio Barrutia kaleko etxeak eraikitze urbanizazio lanen barruan eraiki zuten pareta bota egin beharko dute. Hala jakinarazi dio Jaurlaritzako Uren Sailak Etxebizitza Sailari. Azken sail horretatik adierazi digutenez, datorren uda inguruan botako dute pareta.

Pedro Ignacio Barrutia kalean eraikiko dituzten etxebizitzendako urbanizazio lanak egiten ibili dira azkenaldian. Lanen artean, Aramaioko zenbait auzotarren haserrea piztu zuen pareta bat eraiki zuten errekan. Bada, orain, kontua da Jaurlaritzako Uren Sailak, pareta ikusi eta gero, ez duela onespentik eman. Hala, Jaurlaritzako Etxebizitza Sailari pareta eraisteko agindua eman dio, eta horrela egingo dute.

PROIEKTUA EGITEN DABILITZA

Etxebizitza Saitetik jakinarazi digutenez, errekan eraiki duten paretak indarrean dagoen legea betetzen du, "baina interpretazio arazo bat sortu zen", eta horren ondorioz, Uren Sailak ez du onartu egindako pareta. Gaineratu-



Pareta eraiki zutenean, zenbait bizilagunek salatu zuten ez zuela betetzen indarrean dagoen legea.

takoaren arabera, Udalak lanen proiektua Uren Sailera garaiz bidali behar zion, baina ez zuen hala egin. Horregatik, Etxebizitza Sailekoek pareta eraiki egin

zuten eta orain bota egin beharko dute.

DATORREN UDAN

Edozelan ere, ez dute pareta bere-

hala botako. Etxebizitza Saitetik jakinarazi digutenez, orain, urbanizazio proiektua egokitu egin beharko dute. Eta horretarako bi hilabete beharko dituzte. Horren

Errekako pareta bota ostean, harri-lubeta bat eraikiko dute haren lekuan

ostean, proiektua Uren Departamentura eta Aramaioko Udalera bidali beharko dute, haien onspena jasotzeko. Beste hiru hilabete. Eta gero, lanak esleitzeko lehiaketa deitu beharko dute. Horretarako beste hiru hilabete beharko dituzte. Gauzak horrela, pareta bota orduko datorren urteko uda ingurua izango dela adierazi digute. Pareta bota ostean, harri-lubeta egingo dute haren lekuan.

EZ DU ERAGINIK IZANGO

Dena dela, gaineratu ziguten horrek guztiak ez duela eraginik izango Pedro Ignacio Barrutian eraikitzen dabilzan etxebizitzetan eraikuntzan. Gogoratu beharra dago etxebizitza pribatuak zein babes ofizialekoak eraikitzen dabilzala han.

Liburutegia, Euskadiko Liburutegien Katalogoan

U.M.

Datozen urteotan, Aramaioko Udal Liburutegia informatizatu egingo dute. Beste liburutegi batzuen moduan, Euskadiko Liburutegien Katalogoaren izeneko sarean sartuko da. Eta sistema horri esker, sare horren barruan dagoen edozein liburutegitako liburuak hartu ahal izango dira Aramaioko liburutegian bertan.

Euskadiko Liburutegien Katalogoan sartuko diren liburutegi guztiak informatizatu egingo dituzte datozen urteotan. Horrek izango dituen abantailen artean, posible

izango da aramaiotar batek sistema horren barruan dagoen edozein liburutegitako liburu bat hartzea. Adibidez, Aramaion ez badago eskatzaileak nahi duen liburua, ordenagailuan begiratu dute ea non dagoen. Hala, Gasteizen baldin badago, handik ekarriko diote liburua Aramaioko eskatzaileari. Eta gero, Aramaion bertan bueltatu beharko du.

Olga Jauregi liburuazainak azaldu digunez, lan handia da liburutegia informatizatzea, eta poliki-poliki egingo dute. Aurten, esaterako, Olga Jauregik berak 2.000 liburu informatizatuko ditu. Guztira, 7.000-8.000 liburu daude.



Aurten, liburutegitako 2.000 liburu informatizatuko dituzte.

LABUR

Untzilla auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Barikuan hasi eta domekara arte Untzilla auzoan jaiak ospatuko dituzte. Adibidez, barikuan, auzotarrek afaria egingo dute, Gorrotxategi eta Mañukorta bertsoariak giro-tuta. Zapatuan, besteak beste, eguerdian meza izango da; 17:30ean umeendako jolasak egingo dituzte eta gauean, 23:00etan, bolo txapelketa jokatuko dute. Eta domekan, meza-oren ostean, Aramaioko dantza taldeak saioa egingo du eta gero, Vermouth dantza izango da, Gau-Alai taldearekin.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuliako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

ZAPATUKO ZINEMA

Aramaioko zinema-zaleek urri osorako antolatu dituzte zinema emanaldiak. Hain zuzen ere, oraingo asteburuan hasiko dira saioekin, baina barikuan beharrean, oraingoan zaturako egin dute hitzordua. Todd Haynes zuzendariaren *Lejos del Cielo* filma aukeratu dute biharko. Besteak beste, Julianne Moore, Dennis Quaid, Dennis Haysbert eta Patricia Clarkson aktoreek parte hartzen dute drama horretan. Zinema saioaren ordua betikoa da: 22:30.

POZIK IBILALDIAREKIN

Orixol elkartearen pozik dago Aitor Aranaren omenezko aurtengo ibilaldiak izan duen emaitzarekin. Batetik, jende askok parte hartu duela: 125 lagunek. Bestetik, parte-hartzaile guztiak bukatu zutelako sei orduko ibilaldia. Eta hirugarrenik, eta parte-hartzaileek esandakoaren arabera, antolaketa aldetik guztia oso ondo atera zelako. Besteak beste, jakinarazi ziguten ibilaldiaren bukaran kamiseta bana eman zizutela parte-hartzaileei.

Etxaguendarrak pozik geratu dira auzoko jaiekin

UBANE MADERA

Uste baino jende gehiago ibili da Etxaguen aldean San Migel jaiek ospatzen. Hala kontatu digute jaien antolatzaileek. Esaterako, auzotarren arteko afarian 30 lagundik gora parte hartu zuen eta karta-joko txapelketan, Aramaiokoez gain, inguruko jendeak ere parte hartu zuen.

Afaria, ume-jolasak, mezak eta karta-joko txapelketa. Oro har, horietan izan dira jaiak ospatzeko Etxaguenen izan dituzten ekitaldiak. Auzotarrek kontatu digutenez, jaiotarako ez zuten jende askoren parte hartzea espero. Baina haien zorionerako, aurreikusitakoa baino jende gehiagok hartu zuen Etxaguenerako bidea. Gainera, eguraldia lagun izan zuten.

Esandakoaren arabera, bari-kuko afarian, 30 lagundik gora parte hartu zuen. Bestalde, briska, tute eta mus txapelketetan aramaiokoez ez zirenek ere jokatu zuten. Hala, mus txapelketan *Bizkai* eta *Txurtxil* izan ziren irabazleak. Briskan, berriz, Jesusa Bergaretxe eta Maria Luisa Etxebarria. Eta tutean, Jose Maria Mendianduak eta Txomin Arregik irabazi zuten. Irabazle bakoitzak oparitxo bana eta dirua eskuratu zituzten. Horrez gainera, besteak beste, urtean egiten duten lana eskertzeko, auzoko andreei opari bana eman zieten auzotarrek.

EGUAZTENEAN, SAN MIGEL

Eta asteburukoaz gain, herenegun, eguaztena, bazkaria egin zuten auzotarrek Orixol elkartearen. Auzoko zaindari San Migelen omenez egin zuten bazkaria.



NORA GONZALEZ

Etxaguengo umeek gain, kanpotarrak ere izan ziren Etxaguengo jaietan.



ANE PADILLA

Aramaioko boluntarioak uniformearekin ibili ziren, bidea errazteko.

Aramaiotik Lourdesko Ama Birjina bisitatzerara

UBANE MADERA

Aramaiotar talde bat Lourdesen izan da orain dela gutxi. Batzuk gaixorik daude, eta Lourdesko Ama Birjina ikustera joan ziren, osasun hobearren eske. Eta haiei eta gainerako gaixoei laguntzen, Aramaioko beste hamar lagun ere joan ziren Lourdesera. Lau egunez izan ziren han.

Gasteiztik Lourdesera kongregazioak joan behar zuela aprobetxatu, eta Aramaioko 14 lagun Lourdesko Ama Birjina ikusten

izan dira orain dela gutxi. Bidaian parte hartu zuen Ane Padilla aramaiotik jakinarazi digu Aramaiotik hamalau lagun joan zirela Lourdesera: batetik lau gaixo, eta bestetik, hamar lagun haiei laguntzen. Argazkian ikusten duzuen moduan, aramaiotik uniforme eta guzti ibili ziren Lourdes aldean. Kontatutakoaren arabera, lau egun egin zituzten han. Batez ere, mezak entzun zituzten eta bidaiaren azkeneko egunean, ospakizun moduko bat egin zuten guztiak batera. Oro har, oso gustura ibili direla esan digu Ane Padillak.



Bila dabilenak aurkitzen du

Jakinek da orain perretxiko sasoia dela. Ibili ere jende ugari dabil mendian gora eta behera lurrari adi-adi begira. Eta badirudi batzuek, behintzat, lortu dutela saria. Ikusi bestela Ramon Gonzalez aramaiotik orain gutxi aurkitu duen ondotzarra! Ia kilo bete dauka (930 gramo, hain justu ere). Justu non aurkitu duen ez digu esan nahi izan, perretxiko-zale on guztiak moduan sekretua ondo gordetzea komeni zaio-eta, baina pista moduan esan digu Cuatrocientos inguruan egin zuela aurkikuntza gozo hura.

Ramon Gonzalezek ondo etxekoei erakutsi ostean, elkartera eramanezuen, gozo-gozo prestatu eta lagunaren artean jateko. Duda barik lagunak pozik utziko zituen halako hamarretakoarekin. /NORA GONZALEZ, U.M.

ERRETRATUZAHARRA

Maritxu Kajoi dela-eta ateratakoa

Maritxu Kajoi egunean hamalau urte atzera eginez, irudiotakoan moduko argazkiak aurki ditzakegu. Honako hauek dira argazkiko lagunak, ezkerretik eskumara: Imanol Mondragon, Luis Mari Muruamendiaraz, haren atzekoa Jabi Abasolo da, atzeko betaurrekoduna ezezaguna da (seguru aski kanpotik etorritakoa), bizarduna, berriz, Jose Mari Etxabe Txosa da, haren ondokoa Eugenio Otadui da eta eskuma-eskumakoa Miguel Angel Epelde. Maritxu Kajoi jaia hasi eta hiru urtera ateratako argazkia da. Nahiz eta gaur egun egundoko jaia izan Maritxu Kajoi, hasiera apala izan zuen. Esaterako, jaia antolatzen hasi zirenean, Maritxuk ez zuen kaxoirik: "Baña baekixien udaletxe-ko alondigan euela. Abuztuko gaba baten, hara fan ta berreskuratu egin euien neurrixek hartzeko. Jaixen antolatzailliek kajoie hartzen euzen bittartien, ez dakigu zelan baña baten batek kartel hau jarri euen: *Maritxu*



al cajón, el párroco a Trintxerpe. Egune heldu zanién, goxien, kajoie berrixe bere tokixen jarten fan zien. Udaltzainek tokixe zainketako, agindue eukien. Honeik bi errelebotan banatuta euzen; goxeko erreleboen Arbe euen ta atsaldekuen, barrez, Jose Manuel Arriola. Arbe kajoie jarten ebitzienenkana hurreratu

ta eskatu eutzien mesedez atsaldeko erreleborarte ez egiteko ezer. Hala, jaixen antolatzailliek atsaldeko hiruretan bueltau zien euren lana egitera. Han euzela, Jose Manuel Arriola agertu ta zera galdetu eutzien: 'Zeintzuk zarie zuek kajoie jarteko?'. Ta bestien erantzune: 'Jose Arrasaten semie, Jaxinto Guridin

semie, Andres Bidaburun semie ta Anastasion semie'. Hori entzundakuen aguro asko fan zan, ta hala kajoie jarri ahal izen zan".

Argazkia: *Maritxu Kajoi 25 urte liburua.*
Berriemailea: *Maritxu Kajoi 25 urte liburua eta Muruamendiaraz gozotegia.*
Urtea: 1978-1980.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Ospitalea berritzeko lanak

1997an amaitu zituzten ospitalea berritzeko lanak, eta, hain zuzen, gai hori izan zen urte hartako urriaren 10ean atera genuen ARRASATE PRESSko *Asteko gaia*. Berritze lanei esker ospitalea berritu eta handitu egin zuten, zerbitzu gehiago eta hobeto emateko asmoz. Izan ere, lehengo eraikina zaharkitua zegoen, eta langileek ezin zuten behar den moduan lan egin.



≈ 1997 Lanok egiteko, baina, hiru urte behar izan zituzten, 1994an hasi ziren-eta ospitalean berritze lanak egiten.



2004 Lanen atzerapenen zergatia izan zen urte haie-tan garraio eta eraikuntza grebak izan zirela. Hori dela-eta, ospitaleko lanak gelditu egon ziren.



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



Oinezkoen ate automatikoak



Garajeko atek
Burdinazko pertsianak
Automatismoak
Konponketak
Urrutiko agente tresna homologatuak
Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak



JUBAR[®]
ATEAK, S.L.

Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17
110 posta-kutxa • ARRASATE • jubarateak@euskalnet.net

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

Jaso zure herriko berriak...

<http://www.goiena.net/>

[Antzuola](#) [Aramaio](#) [Aretxabaleta](#) [Arrasate](#) [Elgeta](#) [Eskoriatza](#) [Gatzaga](#) [Oñati](#) [Debagoiena](#)

albisteak e-postaz
doan!



azkar, erraz eta doan

igo autobusera



Astelehenetik
egubakoitzera

Goizeko 9etatik aurrera

FM107.7  **ARRASATE
IRRATIA**

parte hartu irratian
Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com